

1. BALIO PROPOSAMENA

Gure ingurunea aztertzen egon gara negozio idea baten bila, eta ondorioztatu dugu zenbait egoera erraztu ditzakegula, horietako egoera bat hurrengoa da: negozio/enpresetan hitzordua edota eskariak eskatzeko ezerosotasunak.

	INDARRAK	AHULEZIAK
Barne-faktoreak	<ul style="list-style-type: none">- Inbertsio handirik ez.- Edonoiz erabiltzeko.- Deskontuak lokaletan.- Tokiko merkataritza sustatu.- Erraz erabiltzeko .- Zerbait berria da.- Dohainik (bertsio normala).	<ul style="list-style-type: none">- Soilik Erandion- Hasiberriak gara- Ez gaitu inork ezagutzen.- Webgunearen arazoak egon daitezke.
	AUKERAK	MEHATXUAK
Kanpo-faktoreak	<ul style="list-style-type: none">- Ez dago horrelako webgunerik.- Eraldaketa digitalarentzako sektore ona.	<ul style="list-style-type: none">- Oraintxe bertan inflazioa dagoenez, kontsumitzeko diru gutxiago.- Krisi ekonomikoa.- Lehiakideak: Enpresak.


Gaur egun, hitzordua eskatzen dugunean jatetxe batean edo ileapaindegi batean adibidez, telefonoz kontaktuan jartzen gara edo negozio bertara joaten gara. Gure enpresak, jendeari emango dion zerbitzua urteko 365 egun eta eguneko 24 orduak funtzionatuko du, hori dela eta, eguneko nahi duzun orduan erabili ahal duzu gure webgunea eta honek eskaintzen duen zerbitzua erabiltzea. Honen bidez, hitzordua eskatu edo dituzun eskariak egin ditzakezu gure webgunea dela bide.

Orokorrean esanda, gure bezeroei eskaintzen diogu hitzorduetarako edota eskarietarako gestio ona izatea interneten bidez eta bezero eta enpresen arteko harremana hobetzea, negozioen helbideak eta deskontuak eskainiz.

Idea berritzailea da, zeren eta ez dago horrelako zerbitzua eskaintzen duen enpresarik gure ingurunean. Oso zerbitzu erabilgarria da, zeren eta lana eta denbora errazteko balio du. Horrez gain, nahiko eskuragarria da, internet bidezkoa delako eta webgunearen bertsiorik sinpleena guztiz doakoa baita. Beraz, zerbitzu bikaina da internet erabiltzen dakien edonozein pertsonarentzat.

Bi bezero mota ditugu; beraz, bi zerbitzu mota desberdin eskainiko ditugu. Enpresei eta erosleei eskainitakoa ez da zerbitzu bera izango:

- Enpresei eskaintakoa: Haien bezeroengan jasotzen dituzten hitzordu eta eskari guztiak kudeatu ahal izateko baliabideak eskaitzen dizkiegu (egutegi online baten moduko batekin). Horrez gain, gure webgunea erabiltzen duten negozioak, webgunean publizitatea jartzeko aukera izango dute diruaren truke . Horrela, bezero berriak irabazteko aukerak emango dizkiegu enpresei.



- Erosleei eskaintakoa: Hitzorduak eskatzeko aukera azkarra eta gestionatu ahal izateko baliabideak ematen ditugu eta eskariak data eta ordu jakin baterako egin daitezzen aukerak ematen ditugu. Horrez gain, enpresekin kontaktuan jartzeko erraztasunak ematen ditugu, enpresen helbide guztiak eskainiz. Gainera, bezeroek enpresa berriak ezagutzeko eta hari buruzko informazioa eskuratzeko aukera dute.

PREMIUM bertsioa:

Gure webguneak doakoa izango ez den bertsio bat izango du (ENHES Premium). Bertsio hau enpresen bezeroentzat proposatutako webgunearen hobezena da.

Bertan, bezeroek enpresen deskontu bereziak jasoko dituzte, webgunea erabiltzen ez duten bezeroek izango ez dutenak. Horrez gain, hitzorduak/eskariak antelazio limite barik eskatzeko aukera ematen du, hau da, ez da beharrezkoa ezarritako datatik egun gutxira egotea hitzorduak edo eskariak eskatu ahal izateko. Dohainiko bertsioak, aldiz, limitea du, ezin izango da hitzordurik edo eskaerarik eskatu hilabete bat baino gehiagoko marjinarekin. Horrela, lehentasuna emango zaie premium bertsioa erabiltzen dutenei.

